



Helduen literatura | ITZULPENEA

Hamar
Andrej Longo

Itzultzailea: Josu Zabaleta
Pasazaite, 2012

Hustu gabeko iturria

HAMAR zenbaki esanguratsuak (*Dieci*, 2007) eman dio izena Andrej Longoren liburuari. Bertan, Hamar Aginduak hari narratibo gisa hartuta, Napoliko egunerokotasun bortitza irudikatzen duten kopuru bereko istorioak biltzen dira.

Jainkoak agindu bezala zintzotasunez bizi beharra dugu, eta horretarako 1etik 10erako lehentasun-ordena sortu zuen. Hau da, zeruan bake eternoa eskuratu ahal izateko, lege moral perfektuaz jabetzeko errezeta pasa zigun.

Denborak aurrera egin ahala Lege Santuak guregan eraginik ez duela uste dugu baina, tantak badi-ra ere, iturri beretik edaten jarraitzen dugu. Ihesi egin nahi izan badiogu ere, 1etik 10era edo dena dela, estruktura jerarkiko baten menpe bizi gara. Horregatik, katolizismoak ezarri digun Jainkoaren gauza guztien gaineko lehentasunaren dogma forma eta irudi desberdinak hartuz joan dela esan daiteke. Horren errepresentazio argia, hain ezaguna zaigun mafia siziliarrean aurkitzen dugu.

Napoliko bazter ilun itogarrietan giroten diren ipuinek helarazi bezala, mafiak ordezkatu du Jainko Jaunaren irudia. Katolizismoaren printzipioetatik ez oso urrun, La Cosa Nostrak ezarri duen arau zerrenda –Capo(jainko)aren esanei kasu egin, lanean zintzoa izan, familia eta oinordekotzaren garrantzia, ondasunak, emakumearen isiltasuna–

bilakatu da Napolin bizirauteko lege sakratua. Liburuan barrena murgildu ahala konturatzen gara, jainkoak gauza guztien motor gisa funtzionatzaren duen bezala, gertakizun ororen atzean mafia ezkutatzaren dela: “...eta arauak bete nahi ez badi-tuzu, ez dago dudarik bala bat sarraraziko dizula buruan. Horrela funtzionatzaren baitute hemen gauzek” (8. orr).

Josu Zabaletak euskaratu dituen hamar istorio gordin hauetan, Longok, beste askok aurretik egin duten bezala, jainkotasunaren sinbologia zapuztu nahi izan duela pentsa dezakegu. Oraindik ere kultura judu-kristauan errotzen den tradizio bati uko eginez, miseria gizakiarena baino ez dela agerian uzten duen errealismo zikinaren korronteari heldu dio Napoliko alderdi gogorrenaren ereduaz baliatuz. Azken finean “norbaitek egin behar zuen, ezin genuen betirako jarraitu horrela” (43. orr).

Ipuin liburu gehienetan bezala, honetan ere denetarik topatzen dugu. Badira astun egiten direnak, hotz uzten dutenak, amaiera irekikoak eta alderantziz, baita bitan edo gehiagotan irakurtzea merezi dutenak ere. Borobilduz, Longorena liburu irakurrien zerrendan sar genezake. ■

Saioa Ruiz Gonzalez



Noranahi zoazela. Nonahi zaudela. Zure jendearekin. Zure iritzia adierazi nahi duzunean, zeure erara. Euskara zure bizimoduaren osagaia da. Berezkoa duzu. Zu eta zure lagunen artean, zure giroan, **gozatu euskaraz**.

BFA DFB
Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia